



**TXOSTENA: PUBLIZITATE AKTIBOAN ETA INFORMAZIO  
PUBLIKORAKO SARBIDEAN ERRENTERIAKO  
UDALAK DITUEN OBLIGAZIOEN BETETZE MAILA.  
2023. URTEA.**

INFORME SOBRE GRADO DE CUMPLIMIENTO DE  
LAS OBLIGACIONES DE PUBLICIDAD ACTIVA Y  
ACCESO A LA INFORMACIÓN PÚBLICA DEL  
AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA  
AÑO 2023.



Errenteriako Udala



# 1. Hitzaurrea

## 1. Introducción

### 1.1 Araudia

#### 1.1 Normativa

Euskadiko Toki Erakundeek buruzko 2/2016 Legearen 66. artikulua betetze aldera aurkezten da Errenteriako Udalaren publizitate aktiboaren eta informazio publikorako sarbidearen inguruko betebeharren betetze-mailari buruzko txosten hau, 2023ari dagokiona.

En cumplimiento del artículo 66 de la Ley 2/2016, de Instituciones Locales de Euskadi se presenta este informe sobre el grado de cumplimiento de las obligaciones de publicidad activa y acceso a la información pública que corresponde al año 2023.

### 1.2 Udal helburua eta tresneria

#### 1.2 Objetivo municipal y herramientas

Errenteriako Udalak gardentasunarekin duen konpromisoa sendoa eta egonkorra da. Herritarrek kudeaketa publikoari buruzko informazioa kontsultatzeko aukera izan dezaten, Udala gero eta baliabide gehiago jartzen ari da denon eskura. Honako hau da aipatutako baliabideen zerrenda:

El Ayuntamiento de Errenteria tiene un compromiso sólido y estable con la transparencia. Para que la ciudadanía tenga la opción de consultar información sobre la gestión pública, el Ayuntamiento está facilitando cada vez más recursos al alcance de todos. La relación de los recursos mencionados es la siguiente:

<b>Gadentasun ataria</b> Portal de transparencia	<b>Udal webgunearekin batera, gardentasun informazioa eta edukiak aurkitzeko atari nagusia da. 2016 urtetik hona informazioaz hornitzen joan da, aldian aldian.</b>  Junto con la web municipal, es el principal portal para encontrar información y contenidos de transparencia. El volumen de información ha ido creciendo periódicamente desde 2016.
---	---



<b>Bideoakten sistema</b> Sistema de videoactas	<b>Sistema honek Udalbatzarraren bideo-aktak eskuratzeko aukera ematen dio edozein pertsonari.</b>  Este sistema permite a cualquier persona acceder a las videoactas del Pleno.
<b>Udalbatzak streaming bidez</b> Sesiones de pleno por streaming	<b>Udalbatzak zuzenean ikus daitezke web gunean streaming bidez.</b>  Las sesiones plenarias son emitidas en directo en la página web por streaming.
<b>Aurrekontua denontzat</b> Presupuesto fácil	<b>Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 57. artikuluan jasotzen da: "aurrekontuak argitara emango dira osorik eta eguneratuta, modu erraz, argi eta grafiko batean". Tresna honek aipatutakoa betetzea errazten du.</b>  El artículo 57 de la Ley 2/2016, de Instituciones Locales de Euskadi, recoge que "los presupuestos se publicarán íntegramente y actualizados de forma sencilla, clara y gráfica". Este instrumento facilita el cumplimiento de lo mencionado.

**Azkenik, Herri Biziak udal organoen jarduerari buruz berri asko argitaratzen ditu; beraz, udal komunikabideak bere rola betetzen du Errenteriako Udala gardenago egiteko esfortzu horretan ere.**

Por último, Herri Bizia publica muchas noticias relativas a la actividad de los órganos municipales; por lo tanto, el medio de comunicación municipal desempeña también su papel en este esfuerzo por hacer más transparente el Ayuntamiento de Errenteria.



### 1.3 Udal antolakuntza

#### 1.3 Organización municipal

Informazioaren Gizartea (IG) departamentuak gardentasunarekin lotura duten eginkizunetan du ardura. Departamentu honetatik bultzada bat eman zaio aipatutako betebeharrak zeharkakoak izan daitezen, hau da, departamentu bakoitzak bere informazioa argitaratzen delaren ardura izatea.

Horretarako, 2019 urtean IG departamentuak bilera erronda deitu zuen udaletxean. Bilera horietan aurrerantzean departamentu bakoitzak argitaratuko duen informazioa adostu eta zehaztu zen udal departamentukin. Honako hauen artean da lan-kargaren banaketa: Idazkaritza Orokorra, Giza-baliabideak, Hirigintza, Kontratazioa eta Ondarea, Ogasuna eta Garapen Ekonomikoa eta, azkenik, Aholkulari Juridikoak ere parte hartuko du.

IG departamentuaren eginkizunak izango dira:

- udal esfortzua koordinatu,
- betetze-mailaren jarraipena egin,
- kalitate hobekuntzak sustatu
- ...eta, noski, bere esparruko informazioa argitaratzea.

El departamento Sociedad de la Información se encarga de las tareas relacionadas con la transparencia. Desde este departamento se ha impulsado que dichas obligaciones sean transversales, es decir, que cada departamento asuma la responsabilidad de que su información sea publicada.


Para ello, en 2019 el departamento convocó una ronda de reuniones en la que se acordó y concretó con las áreas y departamentos la información que cada una de ellas publicaría a partir de entonces. El reparto de la carga de trabajo se ha realizado entre las siguientes subáreas: Secretaría General, Recursos Humanos, Urbanismo, Contratación y Patrimonio, Hacienda y Desarrollo Económico y, por último, el Asesor Jurídico también participará.

Una vez consolidada la nueva forma de trabajar, las funciones de Sociedad de la Información serán:

- coordinar el esfuerzo municipal,
- hacer seguimiento del grado de cumplimiento,
- promover mejoras en la calidad
- ...y, por supuesto, publicar información de su ámbito.

**Ondoren 2023an gardentasun atarira igotako informazioari buruzko grafikoa eta azalpenak:**

A continuación se aporta gráfico y datos sobre la información subida al portal de transparencia en el año 2023:



Grafikoan ikus daiteke nola aldatu den hilabeteka gardentasunaren atarira igo diren dokumentuen kopurua.

En el gráfico se refleja el volumen de la información subida al portal de transparencia en el año 2023.



## 2. Publizitate aktiboaren betetze-maila

### 2. Grado de cumplimiento de la publicidad activa

#### 2.1 Ikuspegi orokorra

##### 2.1 Perpectiva general

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen bigarren kapituluan 6 esparrutan taldekatuta daude publizitate aktiboaren betebeharrak. Zehazki, honako hauek dira esparruak:

- Erakundeari eta antolamenduari buruzko informazioa
- Informazio juridiko-normatiboa
- Tokiko politika publikoen eta zerbitzu-zorroaren gaineko informazioa
- Kudeaketa publikoari buruzko informazioa
- Toki-erakundeen zerbitzurako langileei buruzko informazioa
- Informazio ekonomiko-finantzarioa eta aurrekontuei buruzkoa

Beraz, diagnosis Euskadiko Toki Erakundeei buruzko legearen egitura jarraituz egingo da.

El capítulo segundo de la Ley 2/2016 de Instituciones Locales de Euskadi agrupa las obligaciones de publicidad activa en 6 ámbitos. En concreto, los ámbitos son los siguientes:

- Información institucional y organizativa
- Información jurídico-normativa
- Información sobre políticas públicas locales y cartera de servicios
- Información sobre gestión pública
- Información sobre el personal al servicio de las entidades locales
- Información económico-financiera y presupuestaria

Por tanto, el diagnóstico se realiza siguiendo la estructura de la Ley de Instituciones Locales de Euskadi.

**Argitaratze-maila eta eguneratze-maila, datu konkretuen zehaztapena, ditugun baliabideekin egitea oso konplexua da. Azalpen zehatzagoak atalez atal ematen dira ondoren.**

Con los recursos que tenemos nos es muy difícil realizar una valoración numérica concreta del grado de publicación y del grado de actualización de la información. A continuación se hace una análisis de cada uno de los ámbitos.



## 2.2 Erakundeari eta antolamenduari buruzko informazioa

### 2.2 Información institucional y organizativa

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 52. artikuluan erakundeari eta antolakundeari buruzko informazioaren argitaratze-betebeharrak zerrendatzen dira. Betezte-maila eta eguneratze-maila, biak altuak dira.

El artículo 52 de la Ley 2/2016, de Instituciones Locales de Euskadi, enumera los requisitos de publicación de la información institucional y organizativa. Tanto el grado de cumplimiento como el grado de actualización, ambos son altos.

**Esparru honetan Errenteriako Udalak erronka bat zuen: aholku kontseiluen jarduera dokumentatzea eta argitaratzea.**

El Ayuntamiento de Errenteria ha afrontado un reto en este ámbito; informar sobre la actividad de los Consejos Asesores Municipales.

Aholku kontseiluen jarduerari dagokionean, Informazioaren Gizarte departamentuak espediente mota bat sortu zuen EsKuan, udal espediente elektronikoa kudeatzailean, “ZAKO, aholku kontseiluen urteko memoria” izenekoa, udal aholku kontseilu bakoitzak urtero aurreko urteko jarduerari buruzko memoria osatzeko. Udalak 11 aholku kontseilu ditu, baina Errenteria 2025 Plan Estrategikoaren Jarraipenerako Aholku Kontseilua azken bizpahiru urtetan ez da bildu. Gainerako 10 horietatik 2023 urtean guztiak egin dute urteko memoria eta horiek argitaratuko dira gardentasun atarian. Beraz 2023ko erronka bete da.

Urteko memoria egin duten udal aholku kontseiluak      Urteko memoria egin EZ duten udal aholku kontseiluak  
honakoak 7rak dira:      honakoak 3ak dira:

- |  |   |
|--|---|
| - - Elkarbizitzarako eta Gizarte Ekintzako Kontseilua. |   |
| - Berdintasunerako Kontseilua                          | - Hirigintza plangintzako Kontseilua          |
| - Udal Eskola Kontseilua                               | - Kirolaren Kontseilua                        |
| - Udal Hizkuntza Politikarako Kontseilua               | - Merkataritzako eta Ostalaritzako Kontseilua |
| - Herritarren Segurtasunerako Kontseilua               |   |
| - Ingurumenaren Kontseilua                             |   |
| - LGTBI+ politiken Kontseilua                          |   |

**2024 urteko erronka udal aholku kontseilu guztien memoriak egin eta argitaratzea izango da.**

En cuanto a la actividad de los consejos asesores del ayuntamiento, desde el departamento de Sociedad de la Información se creó un nuevo expediente administrativo en EsKuA, gestor de expedientes electrónicos, denominado “ZAKO, memoria anual de los consejos asesores”, con el objeto de que cada consejo asesor realice la memoria anual de sus actividades. El ayuntamiento cuenta con 11 consejos asesores, pero el Consejo Asesor de Seguimiento del Plan Estratégico Errenteria 2025 no se ha reunido en los últimos años. De los otros 10 consejos asesores todos ellos han redactado su memoria anual del año 2023. Dichas memorias se publicarán en el portal de transparencia. Por tanto se ha cumplido el objetivo marcado para el 2023.



Los Consejos Asesores del ayuntamiento que han redactado la memoria anual son los siguientes 7: Los Consejos Asesores del ayuntamiento que NO han redactado la memoria anual son los siguientes 3:

- Consejo de convivencia y acción social.
  - Consejo de igualdad
  - Consejo escolar
  - Consejo de política lingüística
  - Consejo de Seguridad Ciudadana
  - Consejo de Medio Ambiente (CAMA)
  - Consejo de políticas LGTBI+
- Consejo de planeamiento urbanístico
  - Consejo de deporte
  - Consejo de comercio y hostelería

El reto para el año 2024 será que todos los consejos asesores del ayuntamiento redacten su memoria anual para poder publicarlas todas en el portal de transparencia.

## 2.3 Informazio juridiko-normatiboa

### 2.3 Información jurídico-normativa

**Legearen 53. artikuluan erakundeari eta antolakundeari buruzko informazioaren argitaratze-betebeharrak zerrendatzen dira. Betetze-maila eta eguneratze-maila, biak altuak dira.**

En el artículo 53 de la ley se enumeran los requisitos de publicación de la información sobre la materia jurídico-normativa. Tanto el grado de cumplimiento como el grado de actualización, ambos son altos.

**2019ko txostenean adierazten zen bezala, hiri planeamenduaren aldaketen harira egingo diren herritar partaidetza prozesuen txostenak edota memoriak argitaratzea zen esparru honetako erronkarik argiena eta estatistika hobetzeko biderik azkarrena. 2020an Errenteriako Hiri Antolaketarako Planeamendu Orokorraren (HAPO) errebisioari ekin zitzaion. Errebisio prozesu horretan herritarren partaidetza aurrakusi zen; partaidetzari dagokionean egindako guztia (partaidetza programaren onespina, herritarrak parte hartzeko inkesta bat, etb) udal web gunean argiratu ziren.**

**Partaidetza prozesua ez da oraindik amaitu, izan ere, HAPO-aren errebisioa amaitu gabe baitago. HAPOaren errebisio prozesu honetan onespina pausoak emango diren aldiko partaidetza prozesuak egingo dira eta horiei buruzko memoriak argitaratuko dira web gunean.**

En la memoria del año 2019, se recogía que el reto más claro en este ámbito y la vía más rápida para mejorar la estadística es la publicación de informes y/o memorias de los procesos de participación ciudadana que se vayan a realizar con motivo de los cambios en el planeamiento urbano. En 2020 se dio comienzo a la revisión del Plan General de Ordenación Urbana (PGOU) de Errenteria. En ese proceso de revisión se prevé la participación ciudadana; todo lo relativo a dicha participación ciudadana (programa de participación, encuestas dirigidas a la ciudadanía, etc) se vienen publicando en la página web del ayuntamiento.

El proceso participativo no ha finalizado pues la revisión del PGOU está en tramitación. Las aprobaciones del plan de participación del PGOU y la memoria de los procesos participativos que se han llevado a cabo hasta ahora están publicados en la web del ayuntamiento.



Hobetu beharreko atal bat Udalak bideratzen dituen herritarren parte-hartze prozesuen memoriak eta ondorioen argitalpena zen. Zentzu horretan, 2023an, “Hiri Behatokia 2022” prozesua bideratu zen, 2019-2023 udal agintaldi planaren jarraipena egiteko. Prozesuari buruzko memoria gardentasun atarian jaso da.

2024rako erronka EsKuAn espediente kudeatzailean udalak bideratzen dituen partaidetza prozesu hauen memoriak jasoko dituen espediente mota sortzea izango da.

Un aspecto a mejorar era la publicación de la memoria y conclusiones de los procesos de participación ciudadana que el Ayuntamiento ha llevado a cabo en los últimos años. En este sentido, en el año 2023 se ha subido al portal de transparencia la memoria del proceso participativo “Observatorio Municipal 2022” que se llevó a cabo para hacer el seguimiento del Plan de Mandato municipal 2019-2023.

El reto para el año 2024 será crear en el gestor de expedientes EsKuA un expediente tipo por el que se realicen y recojan las memorias de los procesos participativos que lleve a cabo el ayuntamiento.

## 2.4 Tokiko politika publikoen eta zerbitzu-karten informazioa

### 2.4 Información de políticas públicas locales y de la cartera de servicios

Legearen 54. artikuluan tokiko politika publikoen eta zerbitzu-zorroaren gaineko argitaratze-betebeharrak zerrendatzen dira.

El artículo 54 de la Ley enumera las obligaciones de publicación de las políticas públicas locales, la cartera de servicios y las cartas de servicios.

Atal honetan jasotzen den informazioa ondorengoa da:

- Zerbitzu-kartera edo zerbitzu katalogoak. Bere kostuak; osoak eta banakakoak. Zerbitzuei buruzko informazioa; tasak edo prezio publikoak, zerbitzuen ordutegiak, etab.

- Zerbitzu-kartak eta, bere kasu, zerbitzuen kalitatea balioztatzen duen ziurtapen prozesuak.

La información a publicar de este apartado es la siguiente:

- Las carteras o catálogos de servicios. Sus costes, tanto de manera global como individualizada. Las tasas o precios públicos de los mismos y los horarios de los servicios.

- Las cartas de servicios y, en su caso, los procesos de certificación o acreditación de la calidad de los servicios.

Zerbitzu kartera edo katalogoari dagokionean, udalak herritarrei eskeintzen dien zerbitzuei buruzko informazioa, ordutegi, tasen zenbatekoa, etb, udal web guneko zerbitzu telematikoaren bitartez eskeintzen du (egoitza elektronikoan). Zentzu horretan zerbitzu katalogoaren zerrenda argitaratuda dago web guneko zerbitzu telematikoetan. Pendiente legoke zerbitzuen kostuei buruzko informazioaren argitalpena.

En lo que se refiere a la cartera de servicios, incluyendo información sobre sus horarios, tasas, etc, el ayuntamiento ofrece dicha información en los servicios telemáticos de la página web del ayuntamiento (sede electrónica). En ese sentido, la lista de la cartera de servicios se encuentra publicada en la web del ayuntamiento, en los servicios telemáticos. Quedaría pendiente la publicación de los costes de los servicios municipales.





Zerbitzu kartei dagokionean, Errenteriako Udalak lehendabiziko zerbitzu-kartaren ekoizpen prozesua martxan jarri du; zehazki ZU! Herritarren Arreta Zerbitzuari dagokiona. 2022-an ZU! Arreta zerbitzuko zerbitzu karta egin eta onartu zuen. Aurrera pausu horrek gardentasunaren betetze-maila hobetzen asko lagunduko du eta baita kalitatearen udal konpromezuan ere. 2024. urtean, ZU! Arreta zerbitzuaren zerbitzu-karta onestu zela bi urte egingo ditu eta bere ebaluazioari ekingo zaio.

En lo que a las cartas de servicio se refiere, el Ayuntamiento de Errenteria en 2022 aprobó su primera carta de servicios, concretamente la del servicio ZU! Arreta Zerbitzua-Servicio de Atención ciudadana. Este paso ayudará a mejorar el grado de cumplimiento de las obligaciones de transparencia, a la vez que ayudará a trabajar en el compromiso por la calidad de los servicios del ayuntamiento. En 2024, con motivo del segundo año de su aprobación, se realizará la evaluación de la carta de servicios del servicio de atención ZU!

## 2.5 Kudeaketa publikoari buruzko informazioa

### 2.5 Información sobre gestión pública.

Legearen 55. artikuluan kudeketa publikoari buruzko argitaratze-betebeharrak zerrendatzen dira. Esparru honetan kontratazioarekin, diru-laguntzekin eta hitzarmenekin lotura duen informazioa jasotzen da. Argitaratze-maila emaitza ona. Hala ere, argitaratuta dagoen informazio guztia ez da maiztasun egoki batekin eguneratzen.

El artículo 55 de la Ley enumera las obligaciones de publicación relativas a la gestión pública. En este ámbito se recoge información relacionada con la contratación, subvenciones y convenios. El nivel de publicación es alto. Sin embargo, toda la información no se actualiza con la periodicidad adecuada.

Esparru honetan bi erronka nagusi izango ditu Errenteriako Udalak. Batetik, udalak onartuak dituen lankidetzak hitzarmenen zerrenda argitaratzea. Bestetik, hainbat kasutan argitaratuta dagoen informazioaren eguneratze-maila hobeto zaintzea.

Lehena, 2022 urtetik aurrera onartutako lankidetzak hitzarmenak argitaratuak daude. Pendiente leudeke data hori baino lehen onartutakoak; batzuk badaude baina guztiak ez. Eguneratze mailari dagokionean jarraipena eta ebaluazioa egiteko metodo bat jarri zen martxan IG departamentuan 2022an, taula batean jaso departamentuetatik gardentasun atarirako bidalitako dokumentazioa. Modu honetan urtean zehar gardentasun atarira igotzen den informazioa jasoa geratzen da. Aldiz, argitaratzea falta den informazioaren berri ez dugu, hori departamentu bakoitzak bait daki.

El Ayuntamiento de Errenteria tenía dos grandes retos en este ámbito. Por un lado, la publicación de la lista de todos los convenios de colaboración que tiene aprobados y, por otro, cuidar mejor en algunos casos la actualización de la información ya publicada.

En cuanto al primero, los convenio de colaboración que se vienen aprobando desde 2022, están publicados en el portal de transparencia. Quedarían los convenios de colaboración anteriores a esa fecha; algunos de ellos sí están publicados pero no todos. Con respecto al segundo, en el año 2022 en el departamento de Sociedad de la Información se estableció un método para hacer el seguimiento de la actualización de la información; se recoge en una tabla la relación de la información que nos pasan los departamentos para subirla al portal de transparencia. Lo que no sabemos es la información que no se publica, pues esa información la tiene cada departamento.



## 2.6 Toki-erakundeen zerbitzurako langilei buruzko informazioa

### 2.6 Información sobre el personal al servicio de las entidades locales

Legearen 56. artikuluan toki-erakundeen zerbitzurako langilei buruzko informazioaren gaineko argitaratze-betebeharrak zerrendatzen dira. Betetze-mailari erreparatuz, diagnosiaren esparru honetan emaitza onak ditu Errenteriako Udalak.

Informazio gehiena argitaratua dago. LILEko 56. b) artikuluan xedatutako “Toki-administrazioek edo beste erakunde mota batzuek emandako ikastaro eta prestakuntza-programei” buruzko informazioa argitaratzea izango litzateke 2023rako erronka.

El artículo 56 de la ley enumera las obligaciones de publicación de la información relativa al personal al servicio de las entidades locales. Atendiendo al grado de cumplimiento, el Ayuntamiento de Errenteria cuenta con resultados óptimos en este ámbito del diagnóstico.

Está publicada prácticamente toda la información. El objetivo para el 2023 es mantener este nivel de publicación y publicar la información a la que se refiere el artículo 56.b) de la LILE; los cursos y programas de formación impartidos por las administraciones locales o por otro tipo de entidades.



## **2.7 Informazio ekonomiko-finantzarioa eta aurrekontuei buruzkoa**

### **2.7 Información económico-financiera y presupuestaria**

Legearen 57. artikuluan Informazio ekonomiko-finantzarioa eta aurrekontuei buruzko informazioaren gaineko argitaratze-betebeharrak zerrendatzen dira. Honako esparru honetan aurrekontuari, zorrari edo udal higiezinei buruzko informazioa jasotzen da, besteak beste. Argitaratze-maila ona da. Informazioa udal gardentasun atarian, web gunean eta aurrekontua denontzat gunean aurkitu daiteke.

En el artículo 57 se enumeran las obligaciones de publicación relativas a la información económico-financiera y presupuestaria. En este ámbito se recoge información sobre presupuestos, deuda o inmuebles municipales, entre otros. El nivel de publicación es óptimo. La información se encuentra en la web del ayuntamiento, en el portal de transparencia y en la plataforma presupuesto fácil.

**2023rako erronka, aurrekontua denontzat plataformako informazioaren eguneraketa hobetzea lortu da. Orain hiruhilero eguneratzen da bertako informazioa.**

Se ha logrado el reto para el 2023 consistente en mejorar la actualización de la plataforma presupuesto fácil. Ahora se actualiza trimestralmente la información de dicha plataforma.



## 3. Gardentasun atarian gehien kontsultatu diren edukiak

### 3. Contenidos más vistos en el portal de transparencia

2023 urtean 13.850 Orri-bistaratzek izan zituen gardentasuna.errenteria.eus atariak, horietako 10.364 “Orri-bistaratzek desberdinak” izan ziren. 2022 urtean bisita kopurua 15.243 izan ziren, beraz, %9,1 bisita gutxiago izan dira. Halaber, web-orriaren egondako batesbesteko denbora 4 min 11 s izan ziren. Honako taula honetan datuak azaltzen dira.

En el año 2023 se registraron 13.850 visualizaciones de páginas al portal gardentasuna.errenteria.eus, de las cuales 10.364 fueron diferentes visualizaciones de páginas. En 2022 el número de visitas fue de 15.243, por tanto el número de visitas ha bajado un 9,1 % El tiempo medio en la web fue de 4 min 11 s . En la siguiente tabla se muestran los datos.

#	ORRIAREN URLA	Orri-bistaratzek / Visualizaciones de páginas	Orri-bistaratzek desberdinak / Diferentes visualizaciones de páginas	Batez besteko denbora orrialdean / Promedio de tiempo en la página
1.	es	7.579	5.852	00:01:03
2.	1-antolaketa-plangintza-eta-ondarea	1.751	1.183	00:01:13
3.	<a href="#">/index</a>	1.001	795	00:00:23
4.	7-kontratuak-hitzarmenak-eta-dirulaguntzak	882	579	00:01:11
5.	gardentasuna	676	538	00:00:13
6.	3-ekonomia-finantzak-eta-estadistikak	546	375	00:01:17
7.	4-goikargudunak-eta-arduradunak	409	292	00:00:47
8.	2-arauak-eta-garrantzia-juridikoa-duen informazioa	344	261	00:01:11
9.	5-herriarrekiko-harremanak	170	112	00:00:37
10.	6-ingurumena	114	83	00:01:36
	Guztira	13472	10070	00:09:31



**Aurreko datuetatik hainbat erabiltzaileri buruzko hainbat jokabide-jardunbide ondorioztatu ditzakegu:**

- 1. gardentasun-edukiak gaztelaniaz kontsultazeko joera du;**
- 2. antolaketa, plangintza eta ondarea gardentasun atariko kategoria bisitatuena da;**
- 3. bisita kopurua, aurreko urtearekiko (2022) % 9,1 jetsi da.**

De los datos anteriores podemos deducir diversas prácticas de comportamiento sobre los usuarios:

1. los contenidos de transparencia tienden a consultarse en castellano;
2. organización, planificación y patrimonio es la categoría más visitada del portal de transparencia;
3. el número de visitas con respecto al año anterior (2022) ha descendido un 9,1 %.



## 4. Informazio publikorako sarbide eskubidearen erabilera

### 4. Uso del derecho de acceso a información pública

2023. urtean, Errenteriako Udal Artxiboak 1.117 informazio publiko eskaera jaso zituen eta %100 eskaerei erantzuna eman zitzaion. 2022 urtean 930 eskaera egon ziren, beraz, eskaera kopurua %20,11 igo da. Halaber, ebazteko batez besteko epea hiru eguneko izan zen. Honako taula honetan gehien errepikatu ziren informazio-eskaerak zerrendatuta daude.

En el año 2023 el Archivo Municipal de Errenteria recibió 1.117 solicitudes de información pública y el 100 % fueron atendidas. En 2022 el nº de solicitudes de información fue de 930, luego ha habido un incremento del 20,11%. Asimismo, el plazo medio de resolución fue de tres días. En la siguiente tabla se encuentran las solicitudes de información más repetidas.

<b>Esparru orokorra</b> <i>Ámbito General</i>	<b>Esparru zehatza</b> <i>Ámbito específico</i>	<b>Eskaera kopurua</b> <i>nº de peticiones</i>
<b>Obrak eta hirigintza</b> <i>Obras y urbanismo</i>	<b>Obra partikularrak</b> <i>Obras particulares</i>	342
<b>Giza baliabideak</b> <i>Recursos humanos</i>	<b>Langileak</b> <i>Plantilla</i>	121
<b>Obrak eta hirigintza</b> <i>Obras y urbanismo</i>	<b>Industriak</b> <i>Industrias</i>	110
<b>Obrak eta hirigintza</b> <i>Obras y urbanismo</i>	<b>Planeamendua</b> <i>Planeamiento</i>	99
<b>Obrak eta hirigintza</b> <i>Obras y urbanismo</i>	<b>Udal obrak</b> <i>Obras municipales</i>	76
<b>Kultura</b> <i>Cultura</i>	<b>Kultur jarduerak</b> <i>Actividades culturales</i>	45
<b>Historia</b> <i>Historia</i>	<b>Sustapena, Pribilegioak, historia / Fomento, Privilegios, Historia</b>	42
<b>Ondarea</b> <i>Patrimonio</i>	<b>Ondarea</b> <i>Patrimonio</i>	34
<b>Udal administrazioa</b> <i>Administración municipal</i>	<b>Estadistika</b> <i>Estadística</i>	23
<b>Ogasuna</b> <i>Hacienda</i>	<b>Ogasuna</b> <i>Hacienda</i>	20
<b>Bestelakoak</b> <i>Otras</i>	<b>&lt;=19 Kontsulta</b> <i>&lt;=19 consulta</i>	205
<b>Guztira</b> <i>Total</i>		1.117



**Azkenik, gardentasuna@errenteria.eus helbide elektronikora 0 mezu heldu ziren 2023. urtean.**  
Finalmente, a la dirección de correo electrónico gardentasuna@errenteria.eus llegaron 0 mensajes en el año 2023.



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2024ZBAR0004-2023 udal gardentasun txostena/2023 udal gardentasun